



Ane  
Labaka  
Mayoz



## BILUZIK



Doinua:  
*Egunsenti batean*  
Neurri berezia

Inoiz bota al diogu piroporik geure buruari?  
Ispiluaren aurrean bakarrik gaudela, zer esaten diogu geure islari?  
Maitasun begiekin ikusten al dugu geure gorputza?

Ez dago konplexurik ez duen gorputzik minduko ez zuena zenbait hitz itsusik nahiz berez ez daukadan keinu harroputzik gaur nire ausardia izango du gutxi... Bakarrik bada ere ez sentitzeko hutsik ispiluaren aurrean jarri naiz biluzik.

Ispiluz bestaldeko horrek zerbait dauka... la pentsatu gabe esan diot: "Aupa, zure orbitan izan nahi dut astronauta mila izarren artean zuretzat bat hauta... Zurekin maitemindu al ninteke gauka? Zure edertasunak itsututa nauka".

"Zurekin hautsi nahiko nuke araudia eraikiz biok batzen gaituen zubia. Harribitxi bazina zinake "rubia" frutetan gerezia edo marrubia. Museo baterako a ze irudia... zure ezpainak eta zure ipurdia".

"Behingoz egin dugunez parez pare topo gorritu nahi zintuzket piropoz piropo... Batzutan maite zaitut bestetan gorroto nire pozoinentzako zaitut antidoto. Zugatik, zaitudanez benetan gustoko, koplaren baten bi aldiz egingo dut pota".

"Perfume usaineko zure izerdia, daukazun bizipoza eta energia... Ez naiz pareta galdu duen galtzerdia konpromezuak sortu ohi dit alergian hasi bedi elkarren arteko derbia zu naizelako nire laranja erdia".

"Zure ondoan egon nahiko luke nornahik denok desio dugu ausarta den norbait. Ez bazaitu asetzen hainbat lore alaik isilik egongo naiz ez zaitezten gogait Instagramen jarriko dizkizut mila "like" zu gabe bizitza ezinezkoa zait".



Gorputza aldatzen joaten da bizitzan zehar, dena aldatzen den bezalaxe.

Gorputz guztiek dute beren edertasuna.

Hautzaroko, gaztaroko eta zahartzaroko gorputzetatik zer da gehien atsegin zaiguna?